


Euskal AEko ospitalizazioen %83 ospitale publikoetan artatu ziren

Haurduntza, erditze eta puerperioagatik izanikoak zazpigarren tokian kokatu ziren Euskal AEn eta bosgarrenean Espainian

Euskal AEko ospitaleek 245.409 ospitalizazio erregistratu zituzten 2017an, Espainia osoko %5, eta, hala, dimentsio horretan zazpigarren Erkidego Autonomoa izan zen Euskal AE, Eustaten datuen arabera. Halaber, ospitalizazioen %82,8 ospitale publikoetakoak izan ziren, ehuneko 10 puntu Espainiako batezbestekoaren gainetik (%72,5).

Ospitalearen asistentzia-helburuaren arabera, ospitaleratzeen %94,9 akutuen ospitaleetan izan ziren, %4 egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan eta %1,1 psikiatrikoetan.

Ospitaleraturiko gizonen proportzioa (%50,2) eta emakumeena (%49,8) antzekoak izan ziren; Estatuan gehiago izan ziren emakumeak (%52,3). 65 urte eta gehiagoko pertsonak sarriago joan ziren ospitaleetara, ospitalizazioen erdiak iritsita; Espainian, %45,3.



Ospitalizazio-kausa nagusiak, Espainia osoan bezala, zirkulazio-eritasunak, digestiokoak eta arnasketakoak izan ziren, ospitalizazioen %38,2 (Espainian %37,2); halaz ere, haurduntzari, erditzeari eta puerperioari loturiko egonaldiek zazpigarren tokia hartu zuten Euskal AEn, ospitalizazioen %7,5ekin, noiz eta Espainian bosgarrena hartu baitzuten (%9,2).

Aipatu hiru eritasun-taldeak emakume-ospitaleratzeen %32,8 izan ziren eta %43,5 gizonen kasuan (Estatuan, %31,5 eta %43,6, hurrenez hurren).

Ospitaleratzeak Euskal AEko ospitaleetan, gaixotasun ugarienen arabera, laguntza-helburuari jarraiki. 2017

Diagnostiko-multzo handiak	Guztira		Akutuak	Egonaldi ertaina-luzea	Psikiatrikoak
	Kopurua	%	%	%	%
Guztira	245.409	100	100	100	100
Zirkulazio-aparatua	31.633	12,9	12,7	19,6	2,8
Digestio-aparatua	31.608	12,9	13,5	2,4	-
Arnas-aparatua	30.391	12,4	11,9	27,6	-
Tumoreak	23.698	9,7	9,7	12,4	0,0
Traumatismo eta lesioak	21.499	8,8	9,0	4,5	0,8
Aparatu muskuluesketikoa	20.164	8,2	8,5	3,2	0,0
Haurdunaldiko, erditzeko eta erditze ondoko arazoak	18.485	7,5	7,9	-	-
Aparatu genitourinarioa	16.543	6,7	6,9	4,5	-
Sintomak eta ohiz kanpoko aurkikuntza klinikoak	12.735	5,2	5,3	2,8	0,2
Nahasmendu mentalak eta portaerarenak	7.570	3,1	2,1	1,0	94,1

(*) Portzentajea, ospitaleratze guztien gainean

Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-estatistika

Asistentzia-helburua kontuan izanik, egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak eta psikiatrikoak, ospitalizazioen %5,1ekin, eredu ezberdinak suertatzen dira akutuen ospitaleen aldean, bai artatzen diren patologiez bezainbatean bai ospitaleko egonaldiaren iraupenari doakionez.

Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan ia ospitaleratzeen erdiak arnas aparatuko eritasunek eragin zituzten (%27,6) edo zirkulazio-aparatukoek (%19,6) eta batez besteko egonaldia 20 egunekoa izan zen. Ospitaleko psikiatrikoen kasuan, artatzeen %94,1 lotuak izan ziren buruko eta portaerako desorekei, eskizofrenia nabarmentzen dela, 6 hilez goitiko batez besteko egonaldiarekin.

Ohar metodologikoa

Estatistikako Institutu Nazionalarekin (INE) batera egin da eragiketa. Konparatzeko zioengatik, ospitaleratze modalitatean bakarrik hartzen dira kontuan gertakari horiek zeinek duten egun leko edo gehiagoko iraupenik; alegia, ez dira 0 egunekiko gertakariak aintzat hartzen. Egonaldiaren iraupena kalkulatzeko da egun-kopurua bezala ospitaleratze-datatik altakora arte, kontuan izan gabe ospitaleratze edo altako orduak.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62